## Zk-5163

EBAZPENA, 2001eko irailaren 3koa, HABEren zuzendari nagusiarena, udalen edo udal erakundeen menpeko euskaltegiei, udal titularitateko euskaltegi publikoei, dirulaguntzak emateko baldintzak ezartzen dituen HABEren zuzendari nagusiaren Ebazpena 2001/2002 ikasturtean aplikatzeko egokitzen duena.

1/1994 Legegintzako Dekretuak, irailaren 27koak, Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruzko lege-xedapenen Testu Bategina zehaztu zuen. Dekretu horren IX. Tituluan zehaztutakoaren babesean, abenduaren 26ko 275/2000 Dekretua eman zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako laguntza eta dirulaguntzak arautzen dituzten zenbait xedapenen indarraldia luzatzeari buruzkoa. Dekretuan zehaztutakoaren arabera, Jaurlaritzak eta sail eta erakunde autonomo guztiek 2001eko ekitaldian aplikatzeko beharrezko diren betebehar, baldintza eta epeak egokitu ahal izango dituzte.

2000ko ekitaldian, HABEren zuzendari nagusiak 2000ko urriaren 18ko Ebazpena eman zuen, udalen edo udal erakundeen menpeko euskaltegiei, udal titularitateko euskaltegi publikoei, 2000/2001 ikasturtean dirulaguntzak emateko baldintzak ezartzen zituena (2000ko urriaren 27ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 207. zk.a); hori dela eta, bidezko ikusten da beharrezko diren betebehar eta epeak egokitzea, 2001/2002 ikasturtean aplikatu ahal izateko.

Horiek horrela, honako hau

EBATZI DUT:

*1. artikulua.–* Eskabideak aurkezteko epea.

HABEren zuzendari nagusiaren Ebazpenak, 2000ko urriaren 18koak, udalen edo udal erakundeen menpeko euskaltegiei, udal titularitateko euskaltegi publikoei, dirulaguntzak emateko baldintzak ezartzen dituenak, zehaztutako dirulaguntza-deialdirako eskabideak aurkezteko epea, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondorengo hilabete batekoa izango da 2001/2002 ikasturterako.

*2. artikulua.–* Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

Dirulaguntza hauek eskuratu nahi dituztenek, Ebazpen honen eranskin doan 2000-2001 ikasturterako Ebazpeneko ereduen araberako dirulaguntza eskaria eta gainerako agiriak aurkeztu beharko dituzte, HABEren zuzendaritzara, bai zuzenean, bai Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Proze-

## N°-5163

RESOLUCIÓN de 3 de septiembre de 2001, del Director General de HABE, por la que se adapta para su aplicación durante el curso 2001-2002 la Resolución del Director General de HABE, por la que se establecen las condiciones para la percepción de subvenciones por los euskaltegis públicos de los ayuntamientos o de las entidades de ellos dependientes, euskaltegis públicos de titularidad municipal.

Al amparo de lo establecido en el Título IX del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, se dictó el Decreto 275/2000, de 26 de diciembre, sobre ampliación de la vigencia de determinadas disposiciones reguladoras de ayudas y subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, pudiendo, a tal fin, el Gobierno y los distintos Departamentos y Organismos Autónomos adaptar los plazos, condiciones y requisitos necesarios para su aplicación durante el ejercicio 2001.

En el ejercicio 2000 se dictó la Resolución de 18 de octubre 2000, del Director General de HABE, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco núm. 207 de 27 de octubre de 2000, por la que se establecen las condiciones para la percepción de subvenciones por los euskaltegis públicos de los ayuntamientos o de las entidades de ellos dependientes, euskaltegis públicos de titularidad municipal, para el curso 2000/2001, por lo que procede la adaptación de los plazos y condiciones necesarios para la aplicación de la referida Resolución durante el curso 2001/2002.

En su virtud,

RESUELVO:

*Artículo 1.–* Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes para acceder a la convocatoria de ayudas establecida por la Resolución de 18 de octubre 2000, del Director General de HABE, por la que se establecen las condiciones para la percepción de subvenciones por los euskaltegis públicos de los ayuntamientos o de las entidades de ellos dependientes, euskaltegis públicos de titularidad municipal, en el curso 2001/2002 será de un mes a partir de la publicación de la presente convocatoria en el BOPV.

*Artículo 2.–* Solicitudes y documentación a presentar.

Los euskaltegis solicitantes de las ayudas a las que se refiere la presente, deberán presentar la solicitud y demás documentos requeridos, conforme al modelo de la convocatoria para el curso 2000/2001, que se incluye como Anexo en la presente Resolución, bien directamente, bien por cualquier procedimiento previsto en

dura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak finkatutako bideetatik edozein erabiliz.

*3. artikulua.–* Baliabide ekonomikoak.

Ebazpen honetan aipatutako laguntzetarako 1.429.100.000 pezeta (8.589.063,98 Euro) emango dira 2001/2002 ikasturtean, EAEko Aurrekontu Orokorretan horretarako zehaztutakoaren kontura.

*4. artikulua.–* Egokitzapenak.

Oraingo deialdi honetarako, 2000ko urriaren 18ko ebazpenaren 3. artikulua egokitzen da. Lehen «HABEk erreferentzia gisa hartuko duen matrikula saria gutxienez 145 pezetakoa izango da» esaten zuenaren ordez, orain «HABEk erreferentzia gisa hartuko duen matrikula saria gutxienez 151 pezetakoa (0,91 euro) izango da» esango du.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Guztien ezagutzarako eta balizko interesatuen erabilera errazteko, Ebazpen honen Eranskin gisara doa 2001/2002 ikasturterako aurreikuspenak eta 2000ko urriaren 18ko Ebazpenean zehaztutakoa bateratzen dituen testua.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Ebazpen honen aurka, administrazio bidea agortzen ez duenez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete HABEko lehendakariari. Horretarako, hilabeteko epea izango dute Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

*Bigarrena.–* Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango du indarra.

Donostia-San Sebastián, 2001eko irailaren 3a.

HABEren zuzendari nagusia,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

ERANSKINA

EBAZPENA, 2000ko urriaren 18koa, HABEren zuzendari nagusiarena, 2000ko urritik 2001eko iraila bitarteko dirulaguntzak udalen edo udal erakundeen menpeko euskaltegiei, udal titularitateko euskaltegi publikoei, emateko baldintzak ezartzen dituena.

*1. artikulua.–* Helburua.

1.– Ebazpen honen bitartez, udal euskaltegiek

la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 3.–* Recursos económicos.

Se destina al objeto de las ayudas a las que se refiere la presente Resolución, durante el presente ejercicio 2001, la cantidad de 1.429.100.000 pesetas (8.589.063,98 Euros), con cargo a la partida presupuestaria establecida al efecto en los Presupuestos Generales de la CAPV.

*Artículo 4.–* Adaptaciones.

Al objeto de la presente convocatoria, se adapta el artículo 3 de la Resolución de 18 de octubre de 2000. Donde decía «se tomará como referencia la cantidad mínima de 145 pesetas hora/alumno», debe decir «se tomará como referencia la cantidad mínima de 151 pesetas (0,91 euros) hora/alumno».

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Para general conocimiento y facilitar el uso por las posibles personas interesadas, se incorpora como Anexo a la presente Resolución, el texto resultante de refundir las previsiones efectuadas para el curso 2001/2002, al régimen general establecido por la Resolución de 18 de octubre de 2000.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recurso de alzada ante la Presidenta de HABE, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Segunda.–* La presente Resolución surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Donostia-San Sebastián, a 3 de septiembre de 2001.

El Director General de HABE,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

ANEXO

RESOLUCIÓN de 18 de octubre de 2000, del Director General de HABE, por la que se establecen las condiciones para la percepción de subvenciones por los euskaltegis públicos de los ayuntamientos o de las entidades de ellos dependientes, euskaltegis públicos de titularidad municipal, para el curso 2000/2001.

*Artículo 1.–* Objeto.

1.– Por la presente Resolución se regula el régimen

2001/2002 ikasturtean (2001eko urria-abendua eta 2002ko urtarrila-iraila) emandako ikastaroen finantzaziorako laguntzak arautuko dira.

2.– Laguntzarako eman daitezen kopuruak HABEk bere aurrekontuetan horretarako dituen fondoetatik emango dira, hau da, 1.429.100.000 pezeta (8.589.063,98 Euro), dirutza hori izango delarik aurreikusitako laguntza guztien gehienezko muga jarriko duena.

3.– Dirutza hori eskatutako finantzazio behar guztiei erantzuteko aski ez balitz, dirulaguntzak hainbanatu egingo dira onuradunen artean, deialdi honetan ezartzen diren irizpideei jarraiki jaso beharko lituzketen kopuruak kontuan izanda.

*2. artikulua.–* Onuradunak.

1.– Ebazpen honen bidez deitutako dirulaguntzen onuradunak euskaltegi publikoak izango dira, HABEren Erregistroan horrela sailkatutakoak.

2.– Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak eskuratu ahal izateko, ezinbesteko baldintza izango da HABEren zuzendari nagusiak 1998ko irailaren 9an hartutako Ebazpena, HABEk deialdiz eskaintzen dituen dirulaguntzak eskuratzeko titularitate pribatuko euskaltegiek, bai homologatuek eta bai libreek, zein titularitate publikoko euskaltegiek bete behar dituzten oinarrizko baldintzak ezartzen dituena, betetzea.

*3. artikulua.–* Kopuruak mugatzeko irizpideak.

Honako era honetan kalkulatuko da HABEk onuradun bakoitzari eman beharreko dirulaguntza:

Dirulaguntzak, aurreko ikasturtean HABEk onartutako plantilaren pertsonaleko kostu gordinaren arabera finkatuko dira.

Hala eta guztiz ere, euskaltegiren batek aurreko ikasturtean hamar ordu gehigarritik gora HABEk onartuak izango balitu edo berauek euskaltegiaren plantila finkoak emandako ordu kopurua gaindituko balute, beti ere baldintza hauek 2001/2002 ikasturtean mantenduz, aukera izango du, hala eskatuz gero, irakasle bat gehiagoren dirulaguntza eskuratzeko. Eskaera era honetan luzatu ezean, dirulaguntzari dagokionez, ordu gehigarrien kopurua %30ean jaitsiko zaio.

Langileen kostuak kalkulatzeko, 2001/2002 ikasturteak hartzen dituen bi ekitaldietarako, ARCEPAFEk aitortutako kopuruak bakarrik hartuko dira kontuan. Aipatu kopuruak murriztuak izan daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretako arauek

de ayudas destinadas a la financiación de los cursos de euskera impartidos por los euskaltegis públicos de titularidad municipal, durante el curso 2001/2002 (período octubre-diciembre 2001 y enero-septiembre 2002).

2.– Las cantidades que se otorguen como tales ayudas serán financiadas con cargo a las dotaciones que al efecto quedan consignadas en los Presupuestos de HABE, por un importe de 1.429.100.000 pesetas (8.589.063,98 Euros), siendo tal importe el límite de concesión para el conjunto de las ayudas previstas.

3.– En el supuesto de que dichos fondos fueran insuficientes para hacer frente a las necesidades de financiación solicitadas, se procederá al prorrateo de la subvención entre los beneficiarios, atendiendo a las cantidades que hubieran de percibir conforme a los criterios que se establecen en la presente convocatoria.

*Artículo 2.–* Beneficiarios.

1.– Serán beneficiarios de las ayudas que se convocan por la presente los Euskaltegis Públicos de titularidad municipal, inscritos en el Registro de HABE como tales.

2.– En todo caso, para acceder a las ayudas previstas en la presente convocatoria deberán cumplir lo dispuesto en la Resolución de 9 de septiembre de 1998, del Director General de HABE, por la que se establece el régimen general de condiciones básicas a cumplir por los euskaltegis públicos de titularidad municipal y los de titularidad privada, tanto homologados como libres para acceder a las subvenciones convocadas por HABE.

*Artículo 3.–* Criterios de determinación.

Para el cálculo de la subvención a abonar por HABE a cada beneficiario se procederá conforme al siguiente procedimiento:

El cálculo de las subvenciones se efectuará a partir del coste bruto del personal de la plantilla reconocida por HABE para el curso anterior.

No obstante lo anterior, a aquellos euskaltegis que en el curso anterior hubieran tenido reconocidas por HABE más de diez horas complementarias o un número de horas complementarias superior al número de horas impartidas por la plantilla fija del euskaltegi, siempre y cuando para el curso 2001/2002 se mantengan al menos tales condiciones, se les podrá reconocer un profesor adicional a efectos del cálculo de la subvención, si así lo solicitan. Caso de que no soliciten tal reconocimiento, se reducirá en un 30% la capacidad de impartición de horas complementarias en el presente curso, a los efectos de ayudas por HABE.

A efectos del cálculo del costo de personal, se tendrá exclusivamente en cuenta las cantidades reconocidas por el ARCEPAFE, para cada uno de los ejercicios anuales en los que se extiende el curso 2001/2002. Tales cantidades en todo caso vendrán reducidas en la me-

soldatei dagozkien dirulaguntzetarako horrelakorik ezar dezaketen neurrian.

Dirulaguntza murriztu egingo da matrikula prezioaren arabera, honako era honetan:

a) 2001/2002 ikasturterako HABEk erreferentzia gisa hartuko duen matrikula saria gutxienez 151 pezetakoa (0,91 euro) izango da. Matrikula saria hori baino altuagoa denetan, hauxe izango da erreferentziakoa.

b) Erreferentzia moduan 2001/2002 ikasturterako hartuko den ordu/ikasle kopurua 1995/96ko ikasturtean emandako eskola orduen arabera kalkulatuko da, HABEk 2001/2002 ikasturterako onartutako irakasleei egokituta.

c) Ikastegiak 2001/2002 ikasturtean kobratutako matrikula saria 151 pezetakoa (0,91 euro) edo txikiagoa bada, erreferentziako matrikula sariaren, hau da 151 pezeta (0,91 euro), eta 1995-96 ikasturtean kobratutakoaren arteko aldea kalkulatuko da eta b) atalean azaldutako kalkuluaren bidez lortutako orduekin biderkatuko. Hortik ateratako kopuruaren %75 kenduko zaio Euskaltegi horri legokiokeen dirulaguntzari.

d) Euskaltegiak 2001/2002 ikasturtean kobratutako matrikula saria 151 pezeta (0,91 euro) baino handiagoa denean, horrek eta 1995/96koak duten aldea hartuko da kontuan eta emaitza horren arabera aplikatuko aurreko atalean ezarritako formula.

*4. artikulua.–* Eskariak.

1.– Eskariak, HABEren zuzendari nagusiaren 1998ko irailaren 9ko Ebazpenean ezarritako eskakizunak betetzen ditueneko agiriekin batera, HABEren zuzendari nagusiari luzatuko zaizkio Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondorengo hilabete bateko epean.

2.– Euskaltegiak ikastetxeko langile guztien informazioa bidali beharko du eta 2001/2002 ikasturtean ikasleek ordaindu beharreko matrikula sariaren informazioa daraman eskari ereduaz bat (I eranskina).

3.– Aurkeztutako eskarian dokumenturen bat falta bada, edota okerren bat balego, eskaria luzatu duenari jakinaraziko zaio eta hamar eguneko epea emango okerrak zuzen ditzan eta garbi adierazi, horrela egin ezean, eskabideari uko egin zaiola ulertu beharko dela. Horretarako, ebazpen bat emango da aurretik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluan jasotako baldintzetan.

dida que se establezcan limitaciones a la subvención de salarios, por las disposiciones reguladoras de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La cuantía de la subvención se minorará en función del precio de matrícula, de conformidad con las siguientes reglas:

a) Se tomará como referencia la cantidad mínima de 151 pesetas (0,91 euros) hora/alumno como precio de la matrícula para el curso 2001/2002. Cuando exista un precio de matrícula superior, ése será el precio de referencia.

b) El número de horas/alumno tomado como referencia para el curso 2001/2002 se calculará de conformidad con las horas impartidas en el curso 1995/96 adecuadas al personal reconocido por HABE para el curso 2001/2002.

c) Cuando el precio de matrícula percibido por el centro en el año académico 2001/2002 sea inferior, o igual, a 151 pesetas (0,91 euros), se calculará la diferencia entre el precio de la matrícula de referencia, 151 pesetas (0,91 euros), y el precio de la matrícula percibido por el centro en el curso 1995/96, y se multiplicará por el número de horas resultante de aplicar el cálculo del párrafo b). El 75% de la cantidad resultante de dicha operación se descontará de la subvención que correspondería al beneficiario.

d) Cuando el precio de matrícula percibido por el centro en el año académico 2001/2002 sea superior a 151 pesetas (0,91 euros), se calculará la diferencia entre el precio de matrícula del curso 2001/2002 y el relativo al curso 1995/96, a cuyo resultado se aplicará la misma fórmula establecida en el apartado anterior.

*Artículo 4.–* Presentación de solicitudes.

1.– Las solicitudes que se acompañarán de la documentación que acredite el cumplimiento de los requisitos fijados en la Resolución de 9 de septiembre de 1998, del Director General de HABE, deberán dirigirse al Director General de HABE dentro del mes siguiente a la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– Junto con el modelo de solicitud (anexo I), donde se recogerá la información relativa al precio de matrícula a cobrar durante el curso 2001/2002, el euskaltegi deberá de remitir información relativa a todo el personal del centro.

3.– En el caso de que se advirtiera en la solicitud presentada la falta de algún documento, o la existencia de algún defecto o inexactitud, se comunicará al solicitante, concediéndole un plazo de diez días para que proceda a la subsanación, y advirtiéndole claramente que en caso de no hacerlo así, se entenderá que desiste de su solicitud. Lo cual requerirá resolución previa, en los términos establecidos en el artículo 42 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo.

*5. artikulua.*– Dirulaguntzen Kudeatzailea.

HABEko Kudeaketa zerbitzuaren ardura izango da Ikuskatzailetza eta Ekonomia eta Administrazioaren bitartez deialdi honetan aurreikusitako gestio guztiak burutzea.

*6. artikulua.*– Behin-behineko dirulaguntzaren Ebazpena.

HABEren zuzendari nagusiak laugarren artikuluan ezarritako epe mugetatik hilabeteren buruan hartuko ditu aurkeztutako eskariei buruzko behin-behineko dirulaguntzaren Ebazpenak. Ezarritako epe horretan eskariren bati buruzko Ebazpenik hartzen ez badu, eskaria ez dela onartua izan ulertuko da.

*7. artikulua.*– Behin betiko dirulaguntzaren Ebazpena.

1.– Ikasturteko behin betiko datu errealak eta pertsonal gastuen egiaztagiriak jaso ondoren, HABEren zuzendari nagusiak dagokion behin betiko kopurua finkatuko du datu errealen eta 3. artikuluan finkatutako irizpideen arabera.

2.– Interesatu bakoitzari egin dakiokeen Ebazpenaren jakinarazpenaz gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira emandako dirulaguntzak eta horien onuradunak.

*8. artikulua.*– Onuradunaren eginbeharrak.

Ebazpen honetan arautudtako dirulaguntzen onuradunek beti izango dituzte betebehar hauek:

a) Dirulaguntza eman den helburu jakin hartako erabiltzea.

b) Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren arabera, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren zereginetan dihardutela, deialdi honen bitartez esleitutako dirulaguntzak kontrolatzeko eska ditzaten informazioak oro ematea.

*9. artikulua.*– Laguntzen ordainketa.

Dirulaguntzak honako epe eta era hauetan ordainduko dira:

a) Behin-behineko dirulaguntzaren ebazpena hartzean, 2001eko urria-abendua aldiari dagokion zatia ordainduko da.

b) 2002ko apiriletik aurrera behin-behineko dirulaguntzaren ebazpenean esleitutako laguntzaren %55, udal euskaltegiek 2001eko urria-abendua epeko gastuen zuriagiriak bidali eta HABEk aztertu eta onartu ondoren.

*Artículo 5.*– Órgano gestor de las ayudas.

Corresponderá al Servicio de Gestión de HABE, a través de sus unidades de Inspección y Economía y Administración, la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente convocatoria.

*Artículo 6.*– Resolución de la subvención provisional.

Las solicitudes presentadas serán resueltas por el Director General de HABE en el plazo de un mes a partir de la fecha límite establecida en el artículo cuarto. Si en el plazo establecido no se hubiese dictado resolución expresa por parte del órgano resolutor, la misma se entenderá desestimada.

*Artículo 7.*– Resolución de la subvención definitiva.

1.– Una vez recogidos los datos reales del curso y las justificaciones de gasto, el Director General de HABE resolverá la cantidad definitiva correspondiente al curso, según los datos reales y los criterios del artículo 3.

2.– Sin perjuicio de la comunicación individualizada de la resolución a los interesados, se harán públicas mediante su inserción en el Boletín Oficial del País Vasco, las subvenciones otorgadas y beneficiarios de las mismas.

*Artículo 8.*– Obligaciones del beneficiario.

Los beneficiarios de las subvenciones reguladas en la presente Resolución deberán de cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida.

b) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria, en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas, de conformidad con lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por la que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

*Artículo 9.*– Pago de las ayudas.

Las ayudas se harán efectivas en la forma y plazos que a continuación se señalan:

a) En el momento de dictarse la resolución de la subvención provisional, se procederá al pago de la parte correspondiente al período octubre a diciembre de 2001.

b) A partir del mes de abril de 2002 se abonará el 55% de la subvención provisional resuelta, una vez que los euskaltegis remitan los documentos acreditativos para la justificación del gasto incurrido en el período octubre-diciembre de 2001, y la misma sea analizada y aceptada.

c) Gainerako dirulaguntza, bakoitzari dagokiona, euskaltegiak bere jardun osoa ondo zuritu eta agiriak bidali ondoren esleituko da. Ordainketa hori dirulaguntzaren behin betiko kitapena izango da, eta aurretik behin betiko dirulaguntzaren ebazpena eskatuko du.

*10. artikulua.*– Laguntzen bateragarritasuna.

1.– Deialdi honek arautuko laguntzak bateragarriak izango dira onuradunak izan dezakeen beste edozein sarrerarekin, lagundutako jarduerak inolako gainfinantzaketarik izan ez dezakeelarik.

2.– Gainfinantzaketarik gertatutako balitz, beronen heinean murriztuko litzateke dirulaguntza. Dirulaguntza kopururik ordaindu bada, horretaz ohartu denetik hogei eguneko epea du onuradunak bere borondatez gainfinantzatutako kopurua Euskadiko Diruzaintza Nagusian sartzeko; horrela egin ezean, diru itzulketako arauzko prozedura aplikatuko zaio.

3.– Gainfinantzazioa itzultzera behartzen duen beste laguntza batekin batera gertatuko balitz, lagundutako jardueraren kostuan dirulaguntzak duen proportzioaren heinekoa izango da itzuli beharreko diru kopurua.

*11. artikulua.*– Zuriketa.

1.– Udal euskaltegiek jasotako dirulaguntzen zuriketa beren langileen soldata gastu gordinei buruz Udaleko Kontuhartzaileak egin eta Alkatearen oniritzia duen egiaztagiriaren bitartez egingo da.

2.– Aipatutako egiaztagiriak honako epe hauetan aurkeztu beharko zaizkio HABEri:

a) 2002ko martxoaren 1a baino lehenago bidali beharko dira HABEra, 2001eko urritik 2001eko abendura bitarteko gastuen zuriagiriak.

Gastuak ez zuritzeak dirulaguntza osorik bertan behera uztea ekarriko du eta, horrez gainera, kasu honetan, ordaindutako kopuruak itzuli beharko dira abenduaren 17ko 698/91 Dekretuaren arabera.

b) 2002ko urriaren 15a baino lehenago bidali beharko dira, 2002ko urtarrila-iraila bitarteko gastuak.

3.– Zuriketak, beti ere, lagundutako jarduerak izan dituen sarrera guztien eta berauen jatorriaren eta ordainketen egoeraren berri eman beharko du.

*12. artikulua.*– Hutsegiteei eta ez betetzeei buruzko arauak.

Edozein kasutan, azaroaren 11ko 1/1997ko Legegintza Dekretuak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen due-

c) La cantidad restante de la subvención, que en cada caso proceda, se hará efectiva una vez remitida y debidamente justificada la totalidad de la actividad del euskaltegi. Tal abono o reintegro constituirá la liquidación definitiva de la subvención otorgada, y requerirá la Resolución definitiva de la subvención otorgada.

*Artículo 10.*– Compatibilidad de las ayudas.

1.– Las ayudas que por la presente se establecen serán compatibles con cualesquiera otros ingresos de los beneficiarios, no cabiendo bajo ninguna circunstancia sobrefinanciación de la actividad subvencionada.

2.– Caso de que se generase tal sobrefinanciación, la ayuda a percibir se reducirá hasta la cantidad que proceda en orden a su supresión. Si hubiesen sido ya abonadas las correspondientes cantidades, el beneficiario deberá ingresar voluntariamente en el plazo de veinte días desde que le constase tal extremo, la cantidad sobrefinanciada en la Tesorería General del País Vasco, siéndole de aplicación en caso contrario el procedimiento de reintegro reglamentariamente establecido.

3.– Cuando la sobrefinanciación se generase en concurrencia con otras ayudas en las que exista el mismo deber de reintegro, la cantidad a reingresar será proporcional al porcentaje de la ayuda concedida sobre el costo de la actividad u objeto subvencionado.

*Artículo 11.*– Justificación.

1.– La justificación por los euskaltegis públicos de titularidad municipal de las subvenciones percibidas se realizará mediante certificado emitido por la Intervención del Ayuntamiento, con el visto bueno del Alcalde/Alcaldesa, relativo a los costes salariales brutos del personal del euskaltegi.

2.– La mencionada justificación deberá presentarse en HABE en los siguientes plazos:

a) Con anterioridad al 1 de marzo de 2002, se deberán de remitir a HABE la justificación de los gastos referidos al período octubre a diciembre de 2001.

La ausencia de la presente justificación supondrá la invalidación automática de la ayuda total concedida, sin perjuicio de lo establecido en relación a la devolución de las cuantías abonadas por el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre.

b) Con anterioridad al 15 de octubre de 2002, se remitirá la justificación de los gastos referidos al período enero a septiembre de 2002.

3.– La justificación deberá en todo caso hacer mención a la existencia de todos los ingresos que hubiera tenido la actividad subvencionada, su origen y el estado de los abonos sobre tales ingresos.

*Artículo 12.*– Régimen de infracciones e incumplimientos.

Los beneficiarios de las ayudas previstas en la presente convocatoria se encuentran, en todo caso, sujetos al régimen de infracciones e incumplimientos previs-

nak, aurreikusten dituen hutsegite eta arau hausteen arauen menpe daude deialdi honetako onuradunak.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honetan aurreikusi gabe geratu diren gaietan, azaroaren 11ko 1/1997ko Legegintza Dekretuak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak, ezarritakoa erabiliko da.

tos en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por la que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

En todo lo no previsto en la presente Resolución será de aplicación lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por la que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

I. ERANSKINA / *ANEXO I*

HABEren zuzendari nagusia:

..............................................................jaunak/andereak ........................................ ENA duenak eta ......................................................................ko ......................................................n bere egoitza, eta Euskaltegien erregistroan .................. zenbakia duen ...................................(*) euskaltegi publikoa ordezkatzeko behar den lege ahalmenarekin,

ESKATZEN DU

Onar dakizkiola HABEren zuzendari nagusiaren 2001eko irailaren 3ko Ebazpenak; 2001eko urritik 2002ko irailera arteko dirulaguntzak udalen edo udal erakundeen menpeko euskaltegiei, udal titularitateko euskaltegi publikoei, emateko baldintzak ezartzen dituenak arautu bezala egin duen eskaria eta aurkeztu dituen beste agiriak.

Aurkeztutako agiriak:

Udal euskaltegiko pertsonalaren egoera.

ADIERAZTEN DU:

2001/2002 ikasturteko ikasle eta orduko matrikula tasa .................................... pezetakoa izango dela.

(Lekua, data, sinadura eta euskaltegiaren zigilua)

* EUSKALTEGIEN ERREGISTROko izena erabili

*Ilmo.Sr. Director General de HABE:*

*Por la presente D/Dña. ............................................. ................................ con D.N.I. n.º: ....................... con domicilio en ......................................................... ............................... teniendo poder suficiente para representar al euskaltegi público ........................................ (*) con n.º de registro .........................................,*

*SOLICITA:*

*Sea tenida en consideración la instancia de solicitud, así como el resto de la documentación presentada, en orden a optar a las subvenciones contempladas en la Resolución del Director General de HABE, de 3 de septiembre de 2001, por la que se establecen las condiciones para la percepción de subvenciones por los euskaltegis públicos de los ayuntamientos o de las entidades de ellos dependientes, euskaltegis públicos de titularidad municipal, para el curso 2001/2002.*

*Documentación presentada:*

*Situación del personal adscrito al euskaltegi.*

*COMUNICA:*

*que el precio de matrícula por hora/alumno es de .............................. pesetas para el curso 2001/2002*

*(Lugar, fecha, firma y sello del euskaltegi)*

** el que figura en el REGISTRO DE EUSKALTEGIS*